

KATERINE

MAITENA ILLARRAMENDI

IÑIGO SARASOLA



Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko,
nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.
Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra
(Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2025eko irailean

Liburuaren diseinua eta maketazioa:
Erein

© textuarena: Maitena Illarramendi

© ilustrazioena: Iñigo Sarasola

© EREIN. Donostia 2025

ISBN: 978-84-1093-064-3

L. G.: D 722-2025

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Gertu

Zubillaga industrialdea, 45

20560 Oñati, Gipuzkoa

T 943 783 309

e-mail: gertu@gertu.net

www.gertu.net



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera
ekologikoa da eta medu jasagarrian
kudeatutako basoetatik dator.

KATERINE

GERRA-AZTARNA, BIZI-TAUPADA

MAITENA ILLARRAMENDI

IÑIGO SARASOLA


erein



KATERIÑE LETAMENDI ALBISU
NAIZ, ETA 24 URTE NITUEN
ORDUAN.



AURREKO EGUNEAN GERRA
PIZTU ZEN, NAHIZ ETA ETXEOEK
EZER EZ JAKIN ARTEAN.



AITA, OHI BEZALA, OSO GOIZ
JOAN ZEN MEZETARA.



NORK PENTSA ZEZAKEEN GAINERA ZETORKIGUNA?



IGANDEA ZEN ETA GARAI HARTAN DENDAK GOIZEZ ZABALIK EGOTEN ZIREN.

LASAI, AITA, ILE-APAINDEGIRA NOA

ILE-APAINDEGIAN NUEN ORDUA HARTUTA PERMANENTEA EGITEKO.



EZ NUEN INOR ESKOPETAREKIN IKUSI.



BAINA ILE-APAINZAILERAK OSO URDURI ZEUDEN.



ETENGABE IBILI
ZIREN ATERATZEN
ETA SARTZEN
GERTATZEN ARI
ZENA JAKITEKO.

PERMANENTEA EGITEKO
TXISMEAK JARRI
ZIZKIDATEN BURUAN.



ETA BAKARRIK UTZI NINDUTENEAN,
ERRULO BERO BAT ASKATU ZITZAIKAN.



GORRIAK IKUSI NITUEN.

LEPOA ERRE ZIDAN, ETA HURA ZAURI
PUSKA EGIN ZIDANA!



DENBORA ASKO BEHAR IZAN
NUEN SENDATZEKO.



BAINA, TIRA, NI NEURE
PERMANENTEAREKIN ATERA
NINTZEN.

¡MÁS CHULA QUE UN OCHO!



GERRAK TOLOSAKO GURE ETXEAN HARRAPATU NINDUEN,
GAIXO NENGOELAKO URDAILEKO ARAZO BATEKIN.



GARAI HARTAN CASA VÍCTOR-EN LAN EGITEN NUEN.
DONOSTIAKO PARTE ZAHARREKO ARRANDEGI KALEAN
ZEGOEN JATETXE BATEAN.



GOGOAN DUT BEZERO ADINTSU BAT,
MADRILDARRA. EZKERREKOA ZELA ZIOTEN.



KAFEA BESTERIK
EZ ZUEN EDATEN,
ETA DENBORA ASKO
IGAROTZEN ZUEN
JATETXEAN.

IDEOLOGIA GUZTIETAKO BEZEROAK GENITUEN. ADIBIDEZ, ITURRINO ANAIK
FALANGEKOAK ZIREN. AZKEN HAUEN LAGUN BATEK BETI GALDERA BERBERA EGITEN
ZIDAN: KAFEA HARTZEN ZUEN TIPO HURA IRITSI OTE ZEN JAKIN NAHI ZUEN.



JAI NUEN ARRATSALDE BATEAN, AVENIDA
ZEHARKATZEN ARI NINTZELA, ITURRINO ANAIEN
LAGUNAREKIN EGIN NUEN TOPO.



GELDI, HITZ EGITEN
JARRAITU BEHAR DUGU,
ZELATAN NAUKATE
ETA...

...GOGOAN DUZU BETI
KAFEA HARTZEN DUEN
MADRILDARRA? ESPIOIA DA. ORPOZ
ORPO JARRAITZEN DIOGU,
BADA EZPADA...



LEHENGOAN,
SAN MARTZIAL JALETAN,
PERTSONA BAT HIL GENUEN, BAINA
HORRELAKOAK ENKARGUZ EGITEN
DIRA, ORDAINDUTA. GU
LIBRE GAUDE...



IKUSI ARTE,
ANDEREÑO!

ENTZUNDAKOAK ENTZUN ONDOREN, EZ NUEN JAKIN ZER ESAN, IZUTUTA NENGOEN. ANTZA DENEZ, NI ERE FALANGEKOA NINTZELA USTE ZUEN. ETA, ZER EGIN NEZAKEEN? ISILDU, INORK EZ BAITZUEN IMAJINATZEN PRESTATZEN ARI ZIRENA; HAIEK IZAN EZIK, JAKINA.

ERBESTETIK ITZULI NINTZENEAN, LANKIDEEK ESAN ZIDATEN KALEAN GELDITU NINDUEN GIZON HURA ONDARRETAKO KARTZELAN FUSILATU ZUTELA BERE KIDEEK. ZERGATIK? AUSKALO, EZ DAKIT AGENTE BIKOITZA OTE ZEN...



ZERBAIT AITORTU NAHI DIZUET: NAHIKO TXORIBURUA IZAN NAIZ.

BAINA BOZKETA HURA ERREPIKATU BEHAR IZAN ZUTEN. LAURA, HAURDUN ZEGOENEZ, BELDUR ZEN, ETA EZ ZUEN TOLOSARA ITZULI NAHI. ALDI BEREAN, ABERTZALEEK LAU HAIZETARA ALDARRIKATZEN ZUTEN EZIN ZELA BOTO BAKAR BAT ERE GALDU.

1936KO HAUTESKUNDEETAN, NIRE AHIZPA LAURA, NAHIZ ETA ANTIGUA AUZOAN BIZI, TOLOSAN ZEGOEN ERROLDATUTA, ETA HARA JOAN ZEN BOZKATZERA.



ETA NI JOAN NINTZEN TOLOSARA, AHIZPAREN ORDEZ BOZKATZERA. HORRETARAKO, HAREN DOKUMENTAZIOA NERAMAN.



BI GIZON TOPATU NITUEN BABESTEKO ZAIN, PISTOLADUNAK, ETA HIRURAK JOAN GINEN BOTOA EMATERA.

HASIERAN EZ ZUTEN BOTOA ONARTU NAHI...



BAINA, AZKENEAN, LORTU NUEN
HAIEK KONBENTZITZEA.

NIRE EZJAKINTASUNAK
BULTZATU NINDUEN
AUSARTA IZATERA...



BAINA GERRA GARAIA, HORRELAKO
GAUZATXOENGATIK JENDE UGARI
«DESAGERRARAZI» ZUTEN ERREPIDE
BAZTERRETAN.

HILEAN BEHIN, MEDIKU TALDE
BAT ETORTZEN ZEN JATETXERA.



HAIEK ZERBITZATZEA TOKATU ZITZAILALA
APROBETXATUZ, NIRE URDAILEKO GAITZA
AZALDU NIEN.



ESPEZIALISTA
BATENGANA JOATEA
GOMENDATU ZIDATEN;
ETA HALAXE EGIN NUEN,
MINAK BERE HORRETAN
JARRAITZEN BAITZUEN.



SENDAGILE TALDE HORRETAN BAZEN BAT
NAFARRA. NAZIONALISTA IZATEAGATIK...

...IRUÑEKO SAN KRISTOBAL GOTORLEKUAN...



...FUSILATU ZUTENA.

BILBON GEUNDELA JAKIN
NUEN HORI, JAKINA...



AZPIROZ ETA MIQUEO SENDAGILEARENGANA JOAN NINTZEN.
DONOSTIAKO PRIM KALEAN ZUEN KONTSULTA. PROBEN
EMAITZEN ARABERA, BAREA HANDITUTA NUEN. ATSEDENA
AGINDU ZIDAN, ETA JANARI BIGUINAK JATEKO ESAN.